

NOS MUEVE
BILBAO
BAT EGINIK



JUAN MARI ABURTO RIKE
BILBOKO ALKATETZARAKO HAUTAGAIA

HAUTESKUNDE PROGRAMA
BILBO 2019-2023

EAJ-PNV.EUS



juanmariaburto.eus



ejaj
pnv

6. HIRI-ERALDAKETA IRAUNKORRA

Bilbo da, zalantzarik gabe, hiri postindustrial bat zerbitzu-hiri modernoa bihurtzeko hiri-eraldaketaren eredurik onenetako bat, eta halaxe aitortu dute behin eta berriz nazioartean.

Orain arteko lorpen garrantzitsuei, hiriaren garapenerako beste aurrerapauso handi batzuk gehitu zaizkie agintaldi honetan; hala nola, Hiri Antolaketarako Plan Orokorren hasierako onarpena, Zorrotzaurreko Uhartearen sorrera eta honen garapeneren bultzada, 5. edukiontzia apurka-apurka hiri osoan ezartzea eta Abiadura Handiko Trena Bilbora lurrazpitik iristeari buruzko akordioa.

HAPOaren behin betiko onarpenari esker, Bilbok eraldaketa hori finkatu eta beste aurrerapauso bat emango du etorkizunerantz, nazioarte mailako Ezagutzaren Hiri bilakatuko duen ibilbide-orria zehaztuz. Ekonomia eta unibertsitate arloetako jardueraren hiri trakziogilea, auzoen garapen orekatuan oinarritutakoa eta hiri-birsorkuntzaren eta iraunkortasunaren aldeko apustuari atxikitakoa.

Garapen berri guztiak gutxiegi erabiltzen diren degradatutako zoruak berrerabiliz planteatuko dira, Hiriaren inguruko zoru ez-urbanizagarria erabili gabe. Hartara, hiriaren inguruko eremu naturalak indartu eta handituko dira Eraztun Berdean, bereziki Artxandan eta Pagasarrin, eta hiriko parke eta lorategietan ere esku hartuko da, kolore gris gutxiago duen hiri berdeagoa lortzeko asmoz.

Helburu honen harira, datozen 4 urteotan, energia berriztagarriak, energia-eraginkortasuna eta hiri-hondakinen murrizketa, berrerabilpena eta birziklapena bultzatzen jarraituko da.

Bestalde, trenbide-lubakiak kentzen jarraituko dugu, eta aldi berean, garraio publikoaren sarea indartu, oinezkoen joan-etorrien mesedeko Auzo-Bihotzak hobetu eta hiria bizikletaren erabilerarako atsegina egitearen alde apustu egingo dugu. Gainera, **modu integralean esku hartuko dugu birgaitzeko eta eraberritzeko premiarik handiena duten auzoetan,** Peñaskalen esaterako, **eta irisgarritasunaren arloko arazo bereziak dituztenetan;** adibidez, Altamira eta Zurbaranen.

6. HIRI-ERALDAKETA IRAUNKORRA

6.1- HIRI ESPARRUAN GAUZATU BEHARREKO ESKU-HARTZE NAGUSIAK

HELBURUA

Hirian egin beharreko etorkizuneko hirigintza-erlaldaketen oinarriak finkatzea, behar bereziak dituzten auzoetan nahiz hiriko aukera-esparruetan hiri-birgaikuntzari eta berritze-prozesuari jarraipena emanez.

NEURRIAK

1. Zorrotzaurreko 2. Egikaritze Unitateko Hitzarmen Batzordea eratzea, uhartearen erdialdeko garapen urbanistikoan aurrera egiten hasteko asmoz.
2. Boluetan erriberako parkea diseinatu eta sortzeko aukera aztertzea, Ibaizabal ibaiaren ondoko aisialdi eta atsedeen eremu bat sortzeko asmoz.
3. Eraikinak zaharberritzeko laguntzak inplementatzea, ahultasunezko gizarte-egoerei arreta berezia emanez.
4. “Abandoko Plan Berezia” onartzea, aukera-esparru honen garapenerako diseinurik onena aukeratzeko hirigintza-diseinuaren lehiaketarekin deialdiaren ondoren.
5. “Peñaskaleko Plan Berezia” onartzea Peñaskal auzoaren erabateko berrikuntza garatzeko, irisgarritasunaren arloko arazoak konponduz eta auzoko bizi-kalitatea hobetuz, Eusko Jaurlaritzarekiko lankidetzaren bitartez ahalbidetuko diren ostatu-emateen laguntzaz.
6. “Zorrotzako Muturreko Plan Berezia” onartzea, Zorrotza auzoan Itsasadarrean bizitoki-garapena errazteko, jarduera ekonomikoetarako eta ekipamendu berrietarako esparru berriak sortuz.
7. Olabeaga auzoko hirigintza-erlaldaketan aurrera egitea, trenbideak auzoan sortutako lubakia kentzea ahalbidetuko duten trenbide-soluzioak zehaztuz eta HAPO berriaren jasotako hiri-garapena sustatuz, honen tramitazioan egindako herritarren parte-hartze bidezko prozesuan adostutakoaren harira.
8. “Artxanda Dinamizatzeko Plana” inplementatzea herritarren aisialdia eta gozamina sustatzeko, hiriaren erreferentziazko natur-eremuaren izaera indartuz.
9. “Itsasadarra Dinamizatzeko Plana” onartzea, horren inguruko aisia, kirol eta kultura arloetako jarduerak antolatu eta sustatzeko.

6. HIRI-ERALDAKETA IRAUNKORRA

10. “Bilboko Parkeak Dinamizatzeko Plana” inplementatzea (Etxebarria, Europa, Ibaieder eta Casilda Iturrizar), horietan dauden azpiegiturak eta berdeguneak egokituz.
11. “Auzo-Bihotzen” garapenarekin jarraitzea, Barrutietako Kontseiluetan horien definizioa eta diseinua adostuz eta horietarako irisgarritasuna hobetuz.

6.2- ESPAZIO PUBLIKOA

HELBURUA

Espazio publikoa egokitu eta horren erabilera hobea sustatzea, bertan hiriaren intereseko izaera sozial, kultural eta komertzialeko jarderak eta ekitaldiak garatuz. Ekitaldi hauek **behar bezalako oreka** lortu behar dute **bizikidetzaren errazteko eta auzoak dinamizatzen laguntzeko**

NEURRIAK

1. “Ostalaritzako Terrazen Plana” garatzea kaleak hobeto antolatzeko eta jarduera honen presentzia areagotzeko.
2. Etxebarria Parkean formato handiko ekitaldiak egitea ahalbidetuko duen esparru publikoa finkatzea.
3. Auzoetako jarduerak egiteko erabiltzen diren plazak eta espazio publikoak horien garapena errazteko behar diren azpiegiturez hornitzea (argi-arguneak, ur-harguneak,...).
4. Ekitaldiak eta jarduerak modu orekatuan baimentzea datari eta kokapenari dagokienez, horien garapena inguruko auzokideen atsedenarekin bateragarria egiteko.
5. Auzoetako kaleak egokitzen jarraitzea horien merkataritza eta ostalaritza erabilerak egonleku eta ibilbide eroso eta irisgarrien behararekin bateragarria egiteko.
6. Hiriko kaleen garbiketa eta kontserbazioa hobetzen jarraitzea.
7. Hiriko argiztapena hobetzen jarraitzea, argiztapen murrizteko inguruneei, auzoetako merkataritza esparruei eta hiriko eraikin eta plazetako argiztapen apaingarriari arreta berezia emanaz.
8. “Espazio Publikoaren Bulegoa” indartzea, espazio publikoari buruzko hobekuntza-ekintzak eta erabilera-eskaerak ahalik eta azkarren bideratu ahal izateko.

6. HIRI-ERALDAKETA IRAUNKORRA

6.3- IRAUNKORTASUNA, INGURUMENA ETA BERDEGUNEAK

HELBURUA

Hiri-eredu iraunkorragoaren garapenean aurrera egiten jarraitzea, energiaren eta uraren kontsumoa zein hiri-hondakinak murriztuz, eta Eratzun Berdea indartzen eta herritarrak iraunkortasunaren balioan hez-ten jarraitzea.

NEURRIAK

1. Birziklapena sustatzeko eta horren garrantziaz kontzientziatzeko ekintzak garatzea, ostalaritza, jatetxe eta catering sektoreetako hondakinen kudeaketari arreta berezia emanaz.
2. Hiriko mendietan espezie autoktonoetako zuhaitzak landatzen jarraitzea, espezie aloktonoetakoak kentzen edo kontrolatzen diren bitartean.
3. “Parkeak dinamizatzeko Plana” garatzea, berdegune horietan dauden azpiegituren hobekuntzaren bitartez dinamika berriak sortzeko asmoz.
4. Hirian energia berriztagarriko sorkuntza-sistemen eta eraikinetan birkarga elektrikorako guneen instalazioa sustatzeko ekimenak garatzea.
5. Pagasarriko natur ingurunea finkatu eta indartzea, Arraiz mendiaren ingurunea babesteko araudia horretara ere hedatuz eta inguruko baso eta zelaiak berreskuratzeko lanekin jarraituz.
6. Peñaskaleko harrobiak natura-eremu horren zainketaren errespetuan oinarrituta izan ditzakeen balizko aisialdi erabilerak aztertzea.
7. Energia-eranginkortasunari eusten dioten eraikuntza eta zaharberritze iraunkorrak sustatzea.
8. Hiriko airearen kalitate handia bermatzeko ekimen berriak garatzea.
9. Udalaren hiri-ortuak garatzen jarraitzea.

NOS MUEVE
BILBAO
BAT EGINIK